



ELHUYAR
aholkularitza

30 min
+10te
gia

Norena da euskara-plana?
Zenbait gako ahalmentzeaz

Elgoibarren, 2009ko urrian



Zertaz jardungo dugu?

Kokatze-lana

- Aurkezpena: abiapuntua, ahalmentzearen definizioa

Prozesua

- Faktoreak
- Ondorioak
- Elhuyar Aholkularitzakoon hamar ondorioak

Galderak



Abiapuntua

EJrekin 5 urterako hitzarmena. Esperientzia pilotuak (4)

Euskara-planak enpresetan

Euskara-planen lehen jarraipenak

Euskara-planak bulegotik bideratzen

Euskara-planak hobetzeko hainbat azterketa

1991

1998

2001

2004

2009

1. euskara-plana: ELAY

17 euskara-plan berri 2 urtean

21 euskara-plan berri euskara-batzordearekin elkarlanean diseinatuta
13 jarraipen, ikuskapenak

13 jarraipen, ikuskapenak...

Sistematizazioa, ahalmentzea...



Zer da ahalmentzea (ahalduntzea, jabetzea, norbere egitea)?

- ☛ Euskara-plana aurrera daroaten erakundeko kideek plana bere egitea.
- ☛ Euskara kudeatzeko gaitasuna (ahalmena, kontzientzia...) izatea, eskuratzea, erdiestea.




Zergatik nahi dugu enpresak euskararen gestioa bere egitea?

- ☛ Denboran irauaraziko dutelako.
- ☛ Aldaketak (moldaketak) errazago egingo dituelako.
- ☛ Plana haiena dela sentituko dutelako.
- ☛ Beste prozesuen parean eta moduan kudeatuko dutelako.
- ☛ Sistematizatu egingo dutelako.
- ☛ Langileena eta enpresarena dela sentitzeak plana indartu egingo dutelako.



Euskara-planetako ahalmentzea aztertzekeo prozesua





PROZESUA: ahalmentzean eragina duten faktoreak

- Euskara-planean inplikaturako pertsonakopuruak
- Euskara-planaren faseak
- Komunikazioak
- Euskaldun-kopuruak
- Euskara-planak eskatzen duen dedikazioak
- Koordinatzaileak
- Egoera sozioekonomikoak
- Zuzendaritzakoen jarrerak
- Jasotzaileen pertzepzioak
- Sentitzen duten beharrak



PROZESUA: Euskara-planean inplikaturako pertsona-kopuruak

Euskara-planean parte hartu dutenak

Ondorioak

- Ilusioa eragin behar dugu.
- Elkarrenganako errespetuz egin behar dugu guztia.
- Plana erakargarri bihurtu behar dugu.

Euskara-planean parte hartu EZ dutenak

Ondorioak

- Neurriko egiturak sortu behar ditugu.
- Sormena landu behar dugu aktibo irauteko.
- Zuzendariak eredu izatera gonbidatu behar ditugu.



PROZESUA: Euskara-planaren faseak

Euskara-planean parte hartu dutenak

Ondorioak

- Okerrak zuzentzeko ahalmena ezinbestekoa da, beti. (Anaje Narbaiza)
- Helburuek fasearen eta pertsonaren neurrikoak izan behar dute.
- Fasearen (unearen) arabera helburuak izan behar ditugu.

Euskara-planean parte hartu EZ dutenak

Ondorioak

- Helburu handiegiak jartzen ditugu.
- Fase bakoitzaren ezaugarriak ondo aztertu behar ditugu eta faseen arabera eragin behar dugu (Plana ezartzean ilusioa eragitea, garapenean erabakiak egoki jasotzea...).



PROZESUA: Komunikazioak

Euskara-planean parte hartu dutenak

Ondorioak

- Euskarak duen balio erantsia zein den komunikatu behar dugu.
- Euskararen estatusa finkatu behar dugu.

Euskara-planean parte hartu EZ dutenak

Ondorioak

- Komunikazioaren mamia landu behar dugu.
- Baliabideak erabiltzen jakin behar dugu, ez helburu bihurtu.



PROZESUA: Euskaldun-kopuruak

Euskara-planean parte hartu dutenak

Ondorioak

- Euskaldun-kopuru handiak ahalmentzean eragin positiboa duela uste arren ez da egia osoa. Euskaldun askok euskarari ez diote inongo baliorik ematen.

Euskara-planean parte hartu EZ dutenak

Ondorioak

- Enpresan euskaldun gutxi izanagatik ere, beti egin daitezke aurreranzko urratsak. Euskaldun gutxiegia izatea muga den arren.



PROZESUA: Euskara-planak eskatzen duen dedikazioa

Euskara-planean parte hartu dutenak

Ondorioak

- Dedikazioa behar da. Dedikazioa enpresarena berarena bada hobeto, baina inplikatu kopuruan eragiten du.

Euskara-planean parte hartu EZ dutenak

Ondorioak

- Dedikazioak merezi du, norbere eta enpresaren identitatea indartzen eta kohesionatzen ditu.
- Helburuen araberako dedikazioa ezarri behar dugu, eta enpresako guztiek halaxe izan behar dela jakin behar dute.



PROZESUA: Koordinatzaileak

Euskara-planean parte hartu dutenak

Ondorioak

- Koordinatzaileak ezin du euskara-plana bakarrik garatu.
- Koordinatzaileak betetzen dituen funtzioak oso garrantzitsuak dira: profil jakinekoa izan behar du.

Euskara-planean parte hartu EZ dutenak

Ondorioak

- Koordinatzaileak enpresaren ezaugarrien araberakoa izan behar du, enpresan euskaldun-kopurua txikia bada... (Aitor Landa)



PROZESUA: Egoera sozioekonomikoak

Euskara-planean parte hartu dutenak

Ondorioak

- Egoerarik egokiena erdibidekoa da, lan-eskasiaren eta lan-bolumen handiaren arteko tartea. (Urko Odriozola)

Euskara-planean parte hartu EZ dutenak

Ondorioak

- Planak eta haren kudeaketa-planak unean uneko egoeretara moldatzeko gaitasuna behar du.



PROZESUA: Zuzendaritzakoen jarrerak

Euskara-planean parte hartu dutenak

Ondorioak

- Inplikazioa alde guztietatik etorri behar da, zuzendaritzatik nahiz langileen aldetik. Ez guztiena maila berean, ezta langile guztiena planaren bizitza osoan ere, orekan baizik.

Euskara-planean parte hartu EZ dutenak

Ondorioak

- Planak goitik beherakoa eta behetik gorakoa izan behar du guztiona izateko.



PROZESUA: Jasotzaileen pertzepzioak

Euskara-planean parte hartu dutenak

Ondorioak

- Planean inplikatzan ez direnak ez dute haren berri erraz izaten, edo informazio okerra izaten dute.
- Komunikazioa planetik kanpo geratzen direnen ikuspegitik ere landu behar dugu.
- Pertsonen iritzia jakitea oinarritzkoa da.

Euskara-planean parte hartu EZ dutenak

Ondorioak

- Euskara-planaren komunikazioak planean inplikatuta daudenek egiten dituzte, haien perspektibatik. Ez ditugu zaintzen jaso behar dituztenen aurreiritzi eta sentsibilitateak.
- Komunikatzen duguna erakargarri komunikatu behar dugu.



PROZESUA: Sentitzen duten beharrak

Euskara-planean parte hartu dutenak

Ondorioak

- Kanpo-eskaria eragilea da enpresa askorentzat.
- Enpresak euskara zergatik behar duen aztertu eta aztertutakoaren arabera eta neurrira jardun behar du.

Euskara-planean parte hartu EZ dutenak

Ondorioak

- Euskaraz lasaitasunez jarduteko aukerak eskaini behar ditugu.
- Kanpo-eragile eta -motibazioak enpresarako erabili behar ditugu.



Elhuyar Ahotkularitzakoon 10 ondorioak

1. Zuzendariek eredu izan behar dute.
2. Kanpo-eskaria izan eta barne-eskaria landu egin behar ditugu.
3. Planak, guztiona izateko, goitik beherakoa eta behetik gorakoa izan behar du.
4. Koordinatzaileak enpresaren ezaugarrien araberakoa izan behar du.
5. Euskararen estatusa finkatu behar dugu.
6. Neurriko helburuak jarri behar ditugu.
7. Baliabideak erabiltzen jakin behar dugu.
8. Euskara-planak dedikazioa behar du.
9. Oker egindakoak zuzentzeko ahalmena behar dugu.
10. Komunikatzen duguna erakargarri eta ikuspegi guztietatik komunikatu behar dugu.



ELHUYAR
aholkularitza

mila esker

www.elhuyaraholkularitza.net

Felipe Iñarra (felipe@elhuyar.com)